

ELKARRIZKETA
SOZIALERAKO MAHAIA
MESA DE
DIÁLOGO SOCIAL

**JARRAIPENARI ETA
ERABAKIAK HARTZEARI
BURUZKO TXOSTENA
EUSKADIKO ELKARRIZKETA
SOZIALAREN MAHAIA
2022ko martxoaren 15a**

Euskadi, auzolana, bien común





ELKARRIZKETA
SOZIALERAKO MAHAIA
MESA DE
DIÁLOGO SOCIAL

AURKIBIDEA

0. SARRERA

- 1. 2021-2026rako LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNeko EUSKAL ESTRATEGIARI BURUZKO ERABAKIA**
- 2. ABEE-EN OSAGARRIEN LAUGARREN LUZAPENARI BURUZKO ERABAKIA**



ELKARRIZKETA
SOZIALERAKO MAHAIA
MESA DE
DIÁLOGO SOCIAL

SARRERA

2021. urtean, indartu egin da gizarte-elkarrizketa metodo gisa, eta zabaldu egin da gobernu-politikak hitzartzeko prozesua helburu izatea. Mahaiaren barruan sortutako taldeek gogor lan egin dute urte osoan. Hala, eta praktika politiko gisa hiruko elkarrizketa normalizatzeko eta finkatzeko prozesuan bilera ugari egin ondoren, akordio garrantzitsuak lortu ziren irailaren 14ko Elkarrizketa Sozialaren Mahaian.

Data horretatik aurrera, aldizkako bilerak egiten jarraitu dute. Horien ondorioz, bi erabaki hartu dira, laneko segurtasunari eta osasunari buruzkoa bata eta errenta txikienak dituzten eta oraindik ABEE egoeran dauden langileen babes soziala indartzeko prozesua luzatzeari buruzkoa bestea.

Hurrengo koadroan 2021ean egin diren bilerak eta lan-saioak zerrendatu eta bakoitzaren edukiak laburbiltzen dira, Elkarrizketa Sozialaren Mahaiak joan den urtean egindako jardueraren irudi orokorragoa izateko.

Horrez gain, garrantzitsua da azpimarratzea aurten webgune bat diseinatzen aritu direla, mahaiaren lanei buruzko informazio osatua emateko eta anagrama bat, mahaia indibidualizatzeko eta irudi bereizia emateko, baina ikusgarritasuna kendu gabe kide izan nahi duten erakundeak Euskadirako erabaki-hartze politikoa demokratikoki hobetzeko prozesuan, Eusko Jaurlaritzaren jardueraren bitartez negoziazioaren eta adostasunaren alde egiten duten gizarte-eragileekin, langileen baldintzak eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko.

BERDINTASUNA	ENPLEGUA	LANBIDE-HEZIKETA	LANEKO OSASUNA	GIZARTE-POLITIKAK	INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA
<p>2021/04/21:</p> <p>1.- Soldata-arrakalaren aurkako euskal estrategiaren atariko ebaluazioa eta eman beharreko hurrengo pausoak.</p> <p>2.- Emakundek negoziazio kolektiboan genero-berdintasunak duen eraginari buruz egindako lanen egoera:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Jardunbide egokien gidaliburua. • Negoziazio kolektiboan genero-berdintasuna sustatzea: erroinka nagusiak eta hobekuntza-proposamenak. 3.- Aurrerapenak, hitzarmen egindako inguruan eguneratu bati dagokionez. <p>2021/04/28 (aldeko bilera: sindikatuak eta enpresa):</p> <p>1.- Sindikatuek eta enpresek zer prestakuntza-premia dituzten enpresetan enpresetan berdintasun-planak ezartze aldera.</p>	<p>2021/01/20:</p> <p>1.- ABEE egoeran dauden langileentzako osagarrien bigarren luzapena (erabakia).</p> <p>2.- Krisian dauden sektoreetako langabeak birkualifikatzeko eta beste lan bat emateko programa (GEEF 25) (erabakia).</p> <p>2021/02/24:</p> <p>1.- 2030erako <u>Enpleguaren Euskal Estrategia</u> aurkeztea.</p> <p>2021/03/16:</p> <p>2030erako Enpleguaren Euskal Estrategiari buruzko dokumentu berri bat.</p> <p>2021/03/26:</p> <p>2030erako Enpleguaren Euskal Estrategiari buruzko dokumentu berri bat.</p> <p>2021/06/01:</p> <p>1.- ABEE egoeran dauden langileentzako osagarrien hirugarren luzapena (erabakia).</p>	<p>2021/09/2:</p> <p>1.- Kualifikazioen eta Espesializazioen Euskal Esparrua garatzea (erabakia).</p> <p>2.- Gaitasunak laneko esperientziaren bitartez egiaztatzea.</p> <p>2021/11/2:</p> <p>1.- Kualifikazioen eta Espesializazioen Euskal Esparrua garatzea.</p>	<p>2021/05/27:</p> <p>1.- Laneko Segurtasun eta Osasunaren 2021-2026 Euskal Estrategiaren oinarriak aurkeztea.</p> <p>Enpresa txiki eta ertainen prebentzio-kulturarako Euskal Behatokiaren Jarraipen Batzorde Mistoa:</p> <p>2021/02/24:</p> <p>1.- 2021eko planak eta ekintzak aurkeztea.</p> <p>2021/03/18:</p> <p>1.- 2021eko planak eta ekintzak onartzea.</p> <p>2021/12/15:</p> <p>1.- Laneko Segurtasun eta Osasunaren 2021-2026 Euskal Estrategiaren gaineko baterako adierazpena (erabakia).</p>	<p>2021/03/22:</p> <p>1.- Lan-eremu nagusien esparri orokorra:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Iraupen luzeke zainketa sozialak eta sanitarioak. • Lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egitea. 	<p>2021/02/23:</p> <p>1.- 4.0 industriarako bidezko trantsizioa egiteko itun soziala ezartzea (erabakia).</p> <p>2021/03/30:</p> <p>1.- 2021-2024 Industria eta Nazioartekoze Plana.</p> <p>2.- Enpresak Nazioartekoze Plana (ENP 21-24).</p> <p>3.- Innobasquek etorkizun hurbileko joeren, profilen eta lanbideen inguruan egindako azterlana aurkeztea.</p>

<p>2021/05/05 (alde biko bilera: sindikatuek eta enpresa):</p> <p>1.- Sindikatuek eta enpresek zer prestakuntza-premia dituzten identifikatzea, enpresetan berdintasun-planak ezartze aldera.</p>	<p>2021/10/13:</p> <p>1.- ABEE egoeran dauden langileentzako osagarrien laugarren luzapena (erabakia).</p> <p>2.- Enpleguaren Plan Estrategikoaren proiektua aurkeztea (2021-2024).</p>				
<p>2021/07/21:</p> <p>1.- Berdintasunari buruzko azterlana aurkeztea EAEko hitzarmen kolektiboetan.</p> <p>2.- Gizarte-eragileek genero-berdintasunaren arloan dituzten lehentasunak aztertzea eta jarduteko proposamen bat egitea (erabakia).</p> <p>3.- Soldata-arrakalaren aurkako 2019-2020 estrategiaren betetze-mailarako esteka bidaltzea.</p>	<p>2021/10/13:</p> <p>1.- Enpleguaren Plan Estrategikoaren proiektua (2021-2024).</p> <p>2021/11/3:</p> <p>1.- Enpleguaren Plan Estrategikoaren proiektua (2021-2024).</p> <p>2021/11/23:</p> <p>1.- Enpleguaren Plan Estrategikoaren proiektua (2021-2024).</p>				
<p>2021/10/26:</p> <p>1.- Soldata-arrakalaren aurkako estrategiaren plan eragilea diseinatzeko egungo lan-faseari buruz informatzea.</p> <p>2.- Emakundek argitaratu eta eguneratutako azken txostenaren berri ematea: <i>Soldata-arrakala Euskal Autonomia Erkidegoan</i>.</p> <p>3.- Emakundek Euskal Autonomia Erkidegoko negoziazio kolektiboari eta berdintasunari buruz egindako azterlanak ezagutaraztea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Jardunbide egokien gidaliburua. • Negoziazio kolektiboan genero-berdintasuna sustatzea: erronka nagusiak eta hobekuntza-proposamenak. 					

<p>4.- Lan eta Enplegu Sailak negoziazio kolektiboko berdintasunari buruz egindako azterlana aldatzea.</p> <p>5.- Lan-plana gaikuntzarako eta barne-prestakuntzako programei loturik, berdintasun-planak negoziatzeko eta garatzeko.</p> <p>6.- Lan-plana berdintasun-batzordeei laguntza eta babesa emateko.</p> <p>2021/11/04 (sindikatuak eta enpresen arteko aldebiko bilera):</p> <p>1.- Sindikatuek eta enpresek zer prestakuntza-premia dituzten identifikatzea, enpresetan berdintasun-planak ezartze aldera.</p>				
--	--	--	--	--

<p>Año hauen arteko bilera: ENPLEGUA, INDUSTRIA eta LANBIDE-HEZIKETA</p> <p>2021/05/05: Enplegu-nitxo berrien inguruko dokumentua aurkeztea. Profesionalizatzea eta lan-merkatura egokitzea.</p> <p>2021/05/18: Enplegu-nitxo eta aukera berriak: «Lan berriak» (erabakiak).</p> <p>Año hauen arteko bilera: ENPLEGUA eta INDUSTRIA</p> <p>2021/03/23:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1.- 2020ko iraila-abendua aldiko «Berpiztu» planaren gauzatzearen lehen balantzea. 2.- Berpiztu planerako 2021. ekitaldirako aurreikusitako aurrekontua. <p>Año hauen arteko bilera: ENPLEGUA eta LANBIDE-HEZIKETA</p> <p>2021/02/11:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1.- Lanbide Heziketako Sistema Integratuaren funtsezko ildoak aurkeztea. <p>2021/02/18:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1.- Orientazio-eredua. <p>2021/05/26:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1.- Lanbide Heziketako Sistema Integratua sortzeko ekintzak, oinarritzat hartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko Legean (4/2018 Legea) ezarritako ereduak.
--



ELKARRIZKETA
SOZIALERAKO MAHAIA
MESA DE
DIÁLOGO SOCIAL

ELKARRIZKETA SOZIALAREN MAHAIKO LANEKO OSASUNEKO LANTALDEAREN BATERAKO ADIERAZPEN ERABAKIA

LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNAREN 2021-2026 EUSKAL ESTRATEGIA

LEHENENGOA. - Elkarrizketa Sozialaren Mahaiko Laneko Osasuneko Lantaldeak, adierazpen honen bidez, LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNAREN 2021-2026 EUSKAL ESTRATEGIA diseinatzearen eta horren funtsezko edukiaren aldeko balorazioa egiten du. Osalaneko Kontseilu Nagusiko kideek aho batez onartu zuten, 2021eko abenduaren 13an. Lantaldeko kideek honako alderdi hauek nabarmendu nahi dituzte bereziki:

- Estrategiaren transbertsalitatea, funtsezko tresna gisa sortu baita hurrengo bost urteetan laneko osasuneko politikari koherentzia emateko ez ezik, Gobernuaren ekintza osoari langileen osasunaren ikuspegi integratua eta globala helarazteko ere, politika publiko guztiak osatzen dituen elementu moduan.
- Estrategia prestatzeko prozesura Gizarte-eragileak aktiboki sartzek, bai Elkarrizketa Sozialaren Mahaian, bai Osalaneko Kontseilu Nagusiaren barruan, beste pauso bat da Euskadiko langileen eta enpresarien ordezkari nagusiekin elkarrizketa instituzionalizatua indartzeko bidean, eta pixkanaka ekintza politiko hitzartuaren funtsezko ezaugarri bihurtzen ari da, baita gure lan-harremanen ereduaren berezko ezaugarri ere.
- Estrategia partaidetza-parametroen arabera lantzeak, halaber, jarraipena ematen die aurreko ekimen batzuei, xede zutenei gizarte-eragileek esku-hartzea EAEko prebentzio-kulturaren hedapenean eta sendotzean; esate baterako, Enpresa Txiki eta Ertainen Lan Osasuneko Euskal Behatokiari, zeina elkarrizketa sozialaren baitan sortu baita.
- Gizarte-eragile adierazgarrienen parte-hartzea iraunarazi eta indartu egin behar da, politika publikoak ezartzeko fasean ez ezik –horretarako Osalaneko prestatutako bide berezien bidez–, diseinuan, inplementazioan, ebaluazioan eta jarraipenean ere; eta, Elkarrizketa Sozialaren Mahaia tresna bereziki egokia da horretarako.

BIGARRENA. - Era berean, Elkarrizketa Sozialaren Mahaiko Lan Osasuneko Lantaldeak uste du, laneko arriskuaren prebentzioari dagokionez, ezinbestekoa dela Administrazio Publikoari behar beste baliabide ematea legez dagozkion lanak eraginkortasunez bete ditzan, ez baita soilik enpresei eta langileei zuzenean eragiten dien gai bat.

Ondorioz, Elkarrizketa Sozialaren Mahaiko lantaldeak egokitzen eta beharrezkotzat jotzen du beharrezkoak diren ekimenak abiaraztea Euskal Autonomia Erkidegoan

Segurtasun eta Osasun Eskalako Azpikonspekzio Kidegoa indartzeko, betiere Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailatza Sistema antolatzen duen uztailaren 21eko 23/2015 Legearen betekizunei eta eskakizunei jarraikiz.

HIRUGARRENA. - Elkarrizketa Sozialaren Mahaiko Lan Osasuneko Lantaldeak uste du, EAEk laneko arriskuen prebentzioaren arloan dituen eskumenak osorik eta eraginkortasunez betetzeko, beharrezkoa dela bere gain hartzea oraindik eskualdatzeke dauden giza baliabideak eta baliabide materialak, hala nola Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Institutu Nazionalak Barakaldon duen zentroa eta ahalik eta lasterren egin dadila eskatzen du. Hori guztia beste autonomia-erkidego batzuekin sinatu beharreko lankidetzak-hitzarmenei kalterik egin gabe, EAETik kanpo dauden beste zerbitzu eta agentzia batzuei laguntza emateko.

ELKARRIZKETA SOZIALAREN MAHAIKO ENPLEGUKO LANTALDEAREN ERABAKIA

ABEE-EN OSAGARRIEN LAUGARREN LUZAPENA

2021eko urriaren 13ko bileran, Elkarrizketa Sozialaren Mahaiko Enpleguko Lantaldeak honako hau **ERABAKI DU**, kide guztien adostasunarekin:


LUZATZEA Elkarrizketa Sozialaren Mahaiak 2020ko ekainaren 18an hartutako erabakia. Horren bidez, osagarriak ezarri ziren aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen zeuden eta urtean hogeita mila euroko (20.000) edo gutxiagoko kotizazio-oinarria zuten langileentzat.

Nola hasierako akordioak hala orain arte Elkarrizketa Sozialaren Mahaian onartutako luzapenek koronabirusaren pandemiaren ondorioz izapidetutako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak (ABEE) –modalitate guztietakoak– arautzen dituen Estatuko araudi bereziak irauten duen bitartean neurri osagarri horri eusteko helburuari erantzuten diote.

Ondorioz, ABEEak 2022ko otsailaren 28ra arte luzatzen dituen 18/2021 Errege Dekretu Legea onartuta, data horretara arte **LUZATU** da, halaber, 2020ko ekainaren 18ko erabakian ezarritako osagarria.

Bilbon, 2021eko urriaren 13an.

Por el Gobierno Vasco:




Presidenta de la Mesa de Diálogo Social
Vicelehendakari Segunda y
Consejera de Trabajo y Empleo
Idoia Mendia Cueva



Consejera de Desarrollo Económico,
Sostenibilidad y Medio Ambiente
Arantxa Tapia Otaegi




Consejero de Educación
Jokin Bildarratz Sorron



Consejera de Igualdad, Justicia y
Políticas Sociales
Beatriz Artolazabal Albeniz



Por Confebask:
Eduardo Zubiaurre
Ariznabarreta



Por CCOO – Euskadi:
Loli García García



Por UGT – Euskadi:
Raúl Arza Vélez